

IRABAZI-ITURRIAK

Gure diru iturriari buruz hitzegitean, aktiboen salmentei esker eskuratuko ditugun sarrerei buruz ari gara bakarrik, ez baitugu beste errenta edo lizentziarik. Sarreretan gainera, produktuaren prezioa Finkoa behar dela izan ondorioztatu dugu, bolumenaren arabera ere handiagotu edo txikiagotuko delarik. Honekin lortu nahi duguna, prezio merkean erosle asko edukitzea da, lehen esan bezala produkzio kostuak urriak izango baitira, merkatuan irabazi egokiak izatea eta lehiakor izatea lortuz.